


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,7 jaitsi dira 2020ko urrian aurreko hilaren aldean

2019ko urriaren aldean kostuak % 0,2 jaitsi dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen Indizea % 0,7 jaitsi da 2020ko urrian aurreko hilaren, 2020ko irailaren, aldean. Urte arteko terminoetan, 2020ko urrian, 2019ko urriaren aldean, kostuak % 0,2 jaitsi dira.

Aurreko hilaren aldean lehengaien kostuak % 0,9 jaitsi dira, eta lan-eskuaren kostuak ez du aldaketarik izan (% 0,0).

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Urrian Etxegintzaren azpisektoreak % 0,7ko hil arteko jaitsiera izan du bere lehengaien kostuan, eta Obra Zibilaren azpisektoreak % 1,4koa. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 0,1 jaitsi dira, eta Obra Zibilekoak % 3,7.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioei dagokienez, 2020ko urrian, 2019ko urriaren aldean, honako sektore hauek nabarmentzen dira igoeretan: *Material elektronikoa* (% 2,0 gora), *Metalezko artikulak* (% 1,7) eta *Material elektrikoa* (% 1,5). Aldiz, prezioetan jaitsierekin hauek nabarmentzen dira: *Petrolio finntzea* (% 25,0 behera), *Energia elektrikoa eta gasa* (% 20,8) eta *Metalurgia* (% 4,2).

**EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA.
ALDAKUNTZA TASAK (p). 2020ko Urria**

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	105,2	-0,7	-0,2
Eraikinak	105,5	-0,6	0,3
Obra zibila	103,8	-1,1	-2,4
LEHENGAI	104,3	-0,9	-0,8
Eraikinak	104,7	-0,7	-0,1
Obra zibila	102,5	-1,4	-3,7
LAN-ESKUA	108,2	0,0	1,8

Oinarria 2015=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62